

Joseba Larreategi
• Miren Uharte

ESKALADA AUSTRALIAN

GURE gaur egungo munduan irudi batek duen boterea neurtezina da. Mendeetan zehar, ikoroklasta eta irudien aldekoen artean eman izan den gatazka, imajinaren garaipen absolutuarekin ebatzi eta burutu da azken hamarkadotan. Eta gure kasuak horren fede ezin hobea eman dezake, argazki liburu bat izan baitzen Australiarako bat-bateko bidai ia inprobisatu bat-sustatu zuena.

Nor ez da Simon Carterren argazkiekin mattemindu?

Climbing Australia bere liburuaren orrialdeek, fantasiazkoak balira bezala, ikusmena liluratzen duen eskaladarako paradisu bitxi zoragarri bat irudikatzen dute. Arku eta fisura kapritxosoek ezinezko eskalada-lerroak marrazten dituzte

eskalada-lerroak marrazten dituzte; kolore anitzeko basamortu-arrokak eguzki boteretsu baten pean distiraten du; itsasoaren erdian olatuen suntsipena desafiitzen dute "totem" harroek... Ametsen munduan dute bizilekua irudi hauek guztiek, eta ametsak egia bihurtzen duen hesi aldakor sotilaren gainean jolasten dute gupidagabe, beraien liluran erori garenon buruetan.


Honek guztiak, baita momentuko grina ukaezin batek ere, aldez aurretik deusik prestatu gabe Melbournerrako hegazkin txartel pare bat erostera mugitu gintuen. Eta honek, egun batetik bestera, munduaren beste muturrerantz hegan gindoazela aurkitu genuen geure burua.

AUSTRALIAKO ESKALADA-GUNERIK BARRANTZITSUENAK



■ Vías atléticas y totalmente desequipadas en Grampians. "The Navigator", 105 m, 21 (6b)

■ Moonarie: Excepcional arenisca en el Great Wall



Melbournerekin duen garraio erraztasun erlatiboa dela-eta, gure bidaiaren lehen helburua Arapiles izatea erabaki genuen. Australiarako bidaiak, 25 bat orduko hegaldia suposatzen du kasurik hoberenetan, baina askotan geldialdiak eta eskalak direla-eta, hegaldia 8-10 ordu luza daiteke. Eta gure kasuan halaxe gertatu zen. 35 orduko bidaia baten ostean, normalena lo egiteko leku bat bilatzea bada ere, hiritik ahal bezain laster atera eta Arapileseraino beste 5 orduko bidaia amaigabeari ekitea erabaki genuen.

Autobusetik Arapiles ikusten duzun lehenengo aldian, Simon Carter benetan argazkilari bikaina dela etortzen zaizu burura. Arapilesko ikuspegia ez da, hasiera batean behintzat, espero litekeen bezain ikusgarria. Zelai-mosaiko mugagabe baten erdian, lautada gordinak ia irentsita, arrokkaren arraildurak osatutako haitz mordo txiki bat altxatzen da. Urrundik kalitate kaxkarreko eskalada leku txiki bat besterik ez dirudi. Benetan zaila da igartzea, Stephen Glowaczek *Grito de Piedra* filmearen hasieran sokarik gabe egiten duen eta hainbeste aldiz argazkietan ikusi dugun *Kachoong* famatua bertan dagoela.



■ Vivac de lujo sobre el Outback australiano en Moonarie



■ Moonarie: Joseba y Miren en la cima de Plying Butress

Baina itxurek ziria sartzen digute askotan eta baieztapen hau inon baino aplikagarriagoa da Arapilesen kasuan. Hasiera batean ustel zirudien arroka, areniskaren metamorfosi baten ondorioz sortutako kuartzita bikaina dugu, aparteko sendotasun eta gogortasunekoa. Arrokkaren ezaugarri bereziek, babes naturalak baliaturik eskalatzeko leku ezin aproposago bihurtzen dute eskola hau, ia 200 metroko hainbat eskalada bikain dituena. Friend eta fisureroentzako kokaleku natural bailiran, era guztietako fisura irregularrak sortzen dira, eskalada lerro bitxi zoragarriak sorturik.

Hasiera batean ustel zirudien arroka

Kuartzita bikaina dugu

Kirol-eskalada hutsa bilatzen dutenek, seguruenik leku okerrarekin egingo dute topo hemen. Arapilesko paretetan metal arrastorik aurkitzea zaila da, irten nahi izan ez duen fisurero edo friend bat ez bada behintzat. Pareta-bilerak egitea ere norberaren lana da, halako etika britainiar baten arabera diseinaturiko igobideak dira-eta. Polemikak polemika, hain ezaugarri aproposak dituen arroka hau, eskalada mota honetarako ezin hobea suertatzen dela esan beharra dago. Inoiz friend bat kokatu ez dutenek ere, lerro erraz zoragarrien zerrenda bukaezin bat topatuko dute hemen: *Mooldoon* bikain nabarmena, adibidez, 60 bat metroko IV. gradu desplomatu zoragarrian gora doana; edo *Watchtower crack* delakoa, 120 metroko V. graduko fisura-eskalada bitxia... Baina hauen artean izarra, arestian aipatutako *Katchoong* famatua dugu, 3-4 metroko sabai espektakularra duen babes naturaleko 6b+ kronpromezuzko ezaguna (22, gradazio australiarrean).

Baina Arapilesek lerro errazak baino zerbait gehiago ere eskaintzen du. Izan ere, bertan munduko lehenengo 8b+a dugu -Wolfgang Güllichek 1985ean irekitako *Punks in the Gym* mitikoa- eta era berean, 8. graduko beste hainbat lerro aurki daiteke.

Arapilesetik abiatzea planteiatu behar izan genuenean, erabakia zail samarra gertatu zitzaigun. Gezurra badirudi ere, kontinente

Gezurra badirudi ere, kontinente lehor honetaneuria ari zen ia egunero

lehor honetan euria ari zuen ia egunero. Eta Arapilesen eskalatzeko uzten zuten bat-bateko euri zaparrada motzak bakarrik izan arren, Grampians aldean benetako euriteak izango zirela abisatu ziguten, hotzagoa eta hezeagoa baita bertako klima. Kontinenteko hego-ekialde osoa euri hodei gris itsusien estalpean zegoela zirudien. Beraz, hoberena basamortu aldera jotzea izanzen zela pentsatu genuen. Arapilesko kanpenean, Moonari izeneko basamortu-arrokkazko leku zoragarri bati buruz hitz egin ziguten.

Moonari South Australia deritzan estatu idorraren erdialdean aurkitzen da, Flinders Rangers izeneko Parke Nazionalaren ateetan eta Adelaidetik 450 bat kilometrotara. Adelaidetik Alice Springsera daraman errepide famatua hartu beharra dago, kamioien "tren-errepide" zoragarria alegia. Australiako garraioaren ehuneko 80a errepidez burutzen da, bi, hiru edo lau erremolke daramatzaten kamioi erraldoi eder hauen bitartez, hain zuzen ere. Hauek dira erdialdeko eremu bakarti eta isolatuetera era guztietako genero



■ Escalada deportiva en Nowra. "Cowboy Junkies", 25 (7b)

eta ondasunak eramaten dituztenak, kilometro luzeetan zehar errepidearen biztanle bakarrak izanik.

Quorn hirira ailegatu eta errepide txiki batek Hawker herrixkara eramango gaitu, baita segituan Flinders Rangers parkearen Wimerara Point izeneko ateetara. Errepidearen bihurtune bakoitzak, lur bakarti bukaezin horren erraietan are eta barrurago sartuko gaitu, lur gorri idorrek eguzki guztiahaldunaren azpian sortzen duen suzko azalean galduz. Udako beroa 55 gradutara iritsi ohi da hemen.

Hurrengo egunetan, hala ere, fenomeno bitxia ezagutu genuen Australiako basamortu alde honetan: egun batetik bestera, udaberriko euri fin lotsati batek, lur idor antzua lorategi koloretsu bihurtu zuen. Noizean behin Australiako paisaia kintaesentzialak halako mozorro miresgarria jantzen du, margo ugariko paisaia ezin ederragoa erakutsiz.

Udaberriko euri fin lotsati batek, lur idor antzua lorategi koloretsu bihurtu zuen

Moonariko paretak, 100 metroko basamortuko areharri gorriak osatuta daude. Haren gogortasuna ez da Arapilesko kuartzitarena, eta askotan, fisurak eta zuloeak are arrastoak dituzte, materialaren finkotasuna zalantzan jarriz. Hala eta guztiz ere, arrokaren malgutasun honek berak forma bitxi zoragarriak sortzen ditu, eskalada-lerro bereziak sortuz. Ordubeteko ibilaldi maldatsua eramango gaitu goi kanpamendura. Bertan vivac egiteko babesleku pare bat dago, baita euri-ura biltzeko tanke bat ere, nahiz eta lehorte garaietan nork bere ura eraman behar duen, inguruko lurretan ez baitago ez erreka ez iturrien arrastorik. Goi kanpamendutik dagoen ikuspegia zoragarria da, bakardade sentzazioa erabatekoa. Bertatik ez da ez herri, ez errepide ez bizitza zantzurik ikusten; zerumugan galtzen den lur antzu gorria, besterik ez.

Paretetan aipagarrienena *Great Wall* deritzan 50 bat metroko plaka perfektua dugu, parabolt gutxi batzuek bakarrik zulatuta. Murru honek babes naturaleko eskalada tekniko eta fina eskatzen du, fisura mehar eta oreka-pausuez lagundurik, *Dawning of Angels* bide zoragarriak erakusten duen modura.

Eguraldia hobera zihoala ohartuta, Moonariko paretak zoragarriak utzi eta Grampians aldera abiatzea erabaki genuen. Australiako kilometroek bestelako neurri psikologikoa dute. Paisaia bukaezin honetan, denbora eta espazioaren arteko erlazioa lozorro goxo batean erortzen da, guregandik urruntzen den paisaia behin eta berriro topatuz bere koordenadak galduta dituen denboran. Honela, ia 1000 kilometroko bidaia egiteari ez genion jaramon berezirik egin.

Grampians Victoria estatuaren erdi aldera dago, Arapilesen hegoaldera. Eukalpto oihanez estalitate mendi multzo txiki batek osatzen du. Bertan, Australiako eskaladarik aipagarrienetako batzuk ditugu, batez ere *Taipan Wall* delako murru ikusgarrian. Babes naturaleko eskalada gailentzen da hemen ere, nahiz eta kirol-eska-

Australian, kilometroek bestelako neurri psikologikoa dute

ladarako sektore txikiak egon, *The Gallery* bikaina, esaterako.

Baina Grampians alde honetan, beste guztien artean arestian aipatutako *Taipan Wall* nabarmentzen da. Inoiz Simon Carterren argazkiak ikusi dituenak, ziurrenik kolore gorri biziko murru espektakular hau izango du gogoan. Argazki makinaren objetiboarendako ezin aproposago eta maiteago agertzen da eukalpto baso berde baten ertzetan; areharrizko monumentuetan bikainena: *Mt Stapyllton* anfiteatroaren erdian gailentzen da, paisaiaren beste edozein elementuren gainetik nabarmenduz. Igobi-deek zailtasuneko eskalada eskaintzen dute bi modutara: alde batetik zailtasun fisikoa, eta bestetik psikologikoa, babes natural eta tekniko-plaka desplomatu honetan bide gehienak 26. gradutik gorakoak baitira. Hauen artean aipagarriena, agian *Serpentine* izeneko bidea dugu, murruaren alderik bikainena hartzen duen 40 metroko 29. (8a) espektakularra.

Grampians aldeak, bestalde, munduko boulder arazorik konplikatu eta hoberenetarikoak eskaintzen ditu, *Hollow Mountain Cave* deritzan kobazuloko sabai bikainak erakusten duen bezala. Ilunabarrean kanguruek jakin-minez inguratzen dute gure boulderra, zertan ari ote garen bere buruari galdezka. Australiako eskualde honetan, badirudi animalia basatiek gizakiaren aktibitateen lekuko izatea gustoko dutela. Ez dira gure beldur, nahiz eta gehiegi hurbiltzeko saioren aurrean, mesfidantza instintibo bat agertu.

Europar batentzat, agian, hau da Australiak gordetzen duen altxorrik zoragarriena: bertako bizitza basatia, hain ugaria eta bitxia.

Hilabete osoa friendekin ibili eta gero, kirol-eskaladan ere aritzeko gogo sartu zitzaigun eta horretarako, berriro ere beste 1000 km egiteko prestatu ginen. Hume errepideak Melbourne eta Sydney lotzen ditu. Kilometroetan aurrera jo eta paisaia ez da kasik aldatzen mendixka eta eukalptoaren erreinu absolutista honetan. Australiako lurrek imajinarioak ezin eskura dezakeen urruntasun neurtezin bat uzten dute asmatzen, eta horrek zabaltasun sentzazio ia agorafobiko bat dakarkigu gogora.

Blue Mountains Sydney inguruetan aurkitzen da eta hartan barrena sartzeko atea Katoomba herria da. Eskualde honetan bai kirol-eskaladan eta bai eskalada tradizionalan aritzeko aukera dago, eta bertako areharria kalitate oneko dugu, noizean behin materiala sartzekoan arroka apurtzen den arren.

Blue Mountains aldean hiru egunetatik bitan euria ari duela diote, eta gu horren lekuko ezin hobeak izan ginen. Euri jasek



■ Moonariko: "Sweeping Pterodactyls", 22 (6b+ / 6c)

erazten duten oparotasun aparta aurkezten du bertako landaretzak, hegoaldera ihes egin duen oihan tropikaleko eremu bat bailitzan. Zorionez, paretak desplomatuei esker, posible da egun euritsuenean ere eskalatzea, nahiz eta bertara ailegatzeko zeharo blai eginda gelditu. Kotxean lo eginda, egunero arropa bustiarekin bizitzera ohitu beharra egoten da hemen. Gogorra da, bai, baina munduaren beste muturrean egonik, ezerosotasunaren kontzeptua ere zeharo aldatzen da. Bidaia hasi genuenetik hiru dutxa besterik ez genituen hartu.

Berriro ere Melbournera bueltatzea suertatu zenean, Hume Highway aspergarria ekidin nahirik, kostaldeko errepidea hartzea erabaki genuen. New South Wales estatua bukatu eta berehala, Victoriako kostalde zoragarria agertzen zaigu begien aurrean, itsaso basati batek moldatua. Hondartzek ere Australiako paisaia haundien zantzua dute. Kilometro luzeetan zehar, itsaso gatazkatsuak bere indarkeria guztiaz kolpatzen du area zuriaren kontra. Areatza bakartietan inor ez, itsasoaren haserreak utzitako medusa hilak, besterik ez.

Hondartzek ere Australiako paisaia haundien zantzua dute

Gure bidaiaren azken egonaldia, neurri handi batean, bidaiaren beraren xedea ere izan zen guretzat. Argazkietan Totem Pole ikusi genuenetik, Tasmaniana bidaiatzearekin egiten genuen amets. Nik banekien sei buril zahar dituen 7b konpromezuzko hura lehenengo saioan eskalatzea, nire ahalmenetik kanpo geratzen zela, baina bidea garbi ikuste amets zoragarri bihurtzen zen nire gogon. *Free Route* deritzan bideak dituen zailtasun guztiak mantso estudiatu genituen, xehetasun osoz aztertu, pausu guztiak miatu. Gauza bat besterik ez zitzaigun falta jakitea: monolitoaren oineraino nola demontre ailegatu, olatu arerio horiek nola gainditu. Bai Melbournen eta bai Hobarten gaiari buruz informatu nahian, hamaika pertsonari galdetu genion, baina bazirudien inork ez zekiela gure arazoaren soluzioa. Bitartean, egunak aurrera joan eta antsiak geometrikoki handituz zihoazen. Azkenean, galderaren erantzuna geuk baino beste inork aurkituko ez zuela ulertuta, bertara joan eta arazoari aurrea ematea erabaki genuen.

Zaila da Totem Poleren aurrean lehenengo aldiz zeure burua topatzen duzunean sentitzen dena azaltzea. Bi orduko ibilaldi baten ondoren, dolerita kolumnarrezko kostalde ikaragarri bat aurkitzen dugu, itsaso beltz beldurgarri baten suntsipenari aurre egiten dion antzinako harresi harro bat bailitza. Naturaren haunditasuna bere mailarik gorenean, ikuskizunetan ikaragarriena, eta paisaia sinestezin honen txoko batean, 65 metroko lau aldeko prisma perfektua dago, eroritako katedrale ahaztu baten azken zutabe tentearen modura. Itsasoak haren oinarriaren aurka jotzean sortzen duen oihu beldurgarria ez da nolanahi ahaztekoa. Bistan zegoen olatuen indarkeria horrek ez zigula har-

Zaila da Totem Poleren aurrean

topatzen duzunean sentitzen dena azaltzea. Bi orduko ibilaldi baten ondoren, dolerita kolumnarrezko kostalde ikaragarri bat aurkitzen dugu, itsaso beltz beldurgarri baten suntsipenari aurre egiten dion antzinako harresi harro bat bailitza. Naturaren haunditasuna bere mailarik gorenean, ikuskizunetan ikaragarriena, eta paisaia sinestezin honen txoko batean, 65 metroko lau aldeko prisma perfektua dago, eroritako katedrale ahaztu baten azken zutabe tentearen modura.

Sentitzen dene azaltzea

Paisaia sinestezin honen txoko batean, 65 metroko lau aldeko prisma perfektua dago, eroritako katedrale ahaztu baten azken zutabe tentearen modura



FOTOS DE LOS AUTORES

■ Uno de los pocos sectores deportivos en Grampians: The Gallery. "Two tribes", 24 (7a)

kaitzaren oinarriaino pasatzen utziko. Baina hala eta guztiz ere, ez genuen etsi eta gutxienez saiakera bat egitea erabaki genuen. Totem Poleren parean dagoen murrutik rapel bat montatu eta behearaino jaitsi ginen. Baina itsasotik bost metrotara geundela, olatu batek blai eginda utzi gintuen eta plana bertan behera uzteko argudiorik hobereana eman zigun. Hurrengo bi egunetan, pare bat orduko ibilaldien ondoren, zapuztutako beste bi saio egin genituen. Bi gizaki kapritxosok bere magalean murgildu nahi izate hutsagatik, itsasoak ez du suetenik eskaintzen. Totem Pole urtean egun bakan batzuetan bakarrik eskala daitekeela diote. Ahoberokeria? Agian bai, baina guk behintzat sinesteko arrazoi sendoa daukagu.

Tasmanian eskaintzen dituen natura eta paisaia apartekoak dira, planetaren eremu galdu honetan sortzen den harribitxi berde bat bailitza. Bidaiaren azken geldialdiak zapore ezin goxogo bat utzi zigun, nahiz eta gure plan guztiak ezin izan genituen burutu. Baina halakoa da Australia, ezustekoen kontinentea, naturaren eta bakardadearen lurra. □

GUÍA PRÁCTICA

- **CÓMO LLEGAR:** Nosotros volamos con la British Airways, por 1000 €, tasas incluidas. Quizá se puedan encontrar vuelos más baratos con compañías como Malasyan Airlines y un poco de paciencia.
- **CUÁNDO IR:** Hay dos épocas buenas para escalar, nuestro otoño (su primavera) y nuestra primavera (su otoño). En su verano, las temperaturas pueden alcanzar los 55 grados, y su invierno puede resultar frío y tormentoso en el sur.
- **CÓMO MOVESE:** La mejor opción es alquilar o comprar un coche o furgoneta. Esto último es recomendable para estancias prolongadas y también hacerlo en Sydney, donde existe un amplio mercado de segunda mano. La gasolina resulta especialmente barata, a unos 50 céntimos el litro.
- **ALOJAMIENTO:** La mayoría de las zonas de escalada cuentan con áreas de acampada semilibre, en el que pagarás una pequeña cuota (1 €/día). En las ciudades, lo más económico son los populares *Backpackers*, en los que se puede dormir por unos 10 €/noche y persona.
- **DÓNDE ESCALAR:** Existen numerosas escuelas en Australia, aproximadamente unas 30, de las que relacionamos a continuación las más importantes:
 - **Arapiles:** 350 km al oeste de Melbourne. Cuenta con cerca de 3000 rutas, que van desde el IV grado hasta 8c. Las vías más largas alcanzan los 180 m de altura. La roca es cuarcita, sólida y extremadamente dura. Predomina la escalada de protección natural en todo tipo de terrenos: fisuras, slabs, vías de canto...
 - **Grampians:** A una hora de Arapiles se encuentra la otra gran escuela del estado de Victoria, con cerca de 1000 rutas repartidas en una treintena de sectores. Predomina la escalada tradicional,

pero también existen varios sectores totalmente equipados para deportiva. También es uno de los mejores destinos del mundo para boulder. Los problemas más duros de Australia están aquí, con varios 8b y 8b+ abiertos por Fred Nicole y el austriaco Klem Loskot.

- **Blue Mountains:** En el estado de Nueva Gales del Sur y a una hora de Sydney, se encuentra esta amplia zona de escalada, con varios miles de rutas, que en ocasiones alcanzan los 300 metros y grados entre IV y 8c. Algunos de sus sectores representan la mejor opción para la escalada deportiva en Australia.
- **Moonari:** En el estado de South Australia, esta escuela nos ofrece la típica escalada en fisura del desierto. 550 rutas de escalada tradicional y un ambiente inigualable.
- **Nowra:** Al sur de las Blue Mountains, esta escuela deportiva ofrece unas 600 vías en las que predomina el bloque y una escalada dinámica.

BIBLIOGRAFÍA

En la librería Altaír se puede encontrar el libro de Pritchard G. *Climbing Australia*, (*The Essential Guide* London: New Holland Publishers 2002), guía básica en cuanto a croquis, pero suficiente para situarnos en el continente australiano. Una vez allá, no resulta difícil hacerse con las guías de las diferentes zonas.

Algunas Web de interés

- www.climbing.com.au
- www.arapiles.com
- www.onsight.com.au
- www.npws.nsw.gov.au (información de parques nacionales de New South Wales)
- www.geocities.com/Pipeline/Ramp/3904